

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1829

*EBAZPENA, 2017ko martxoaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinaren bidez izendatu eta argitara ematen baitira «Kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzak emateko balorazio-batzordeko kideak.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko abenduaren 23ko Agindua aztertu da, «Kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Kontuan izanda, 2016ko abenduaren 23ko Aginduaren 9. artikulua araberan, diru-laguntza horiek emateko ebazpen-proposamena balorazio-batzorde batek egin behar duela eta batzorde horretako kideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko direla.

Horiek horrela, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– «Kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzen ebazpen-proposamena egingo duen balorazio-batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitara ematea. Hau izango da:

Batzordeburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak:

– Amaia Ibáñez Zalba andrea.

– Amagoia Garaizabal Armesto andrea.

Idazkaria: Jose Luis Ibarzabal Egibar jauna, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 27a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,  
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.